


Erlezaintza

Eskolan egiteko araketak





Bisita egin baino lehen

Erleak ezagutzen

✎ Ikusi al duzu inoiz erle bat gertutik?

Bai

EZ

✎ Nolakoak dira? Hegalik ba al dute? **Bai, bi pare** Zenbat hanka? **6 intsektuak direlako** Zein kolorekoak dira?... **Horiak eta beltzak**

✎ Marraz ezazu!

✎ Ziztatu al zaitu inoiz erle batek?

Bai

EZ

✎ Zer gertatu zaitzu ziztatu zaitunean?

✎ Zergatik uste duzu ziztatzen dutela?

Defendatzeko. Arrazoiak desberdinak izan daitezke: kolonia osoa eraso baten aurrean defendatzeko edo pekoreoan dabiltzala pertsonaren batekin ezustean topo egin eta eztena ateratzen zaie. Baliteke ere eguraldiaren baldintzak eraginda izatea. Kontuan hartu eraso bat ez dela, bera hil egiten da ziztatu ondoren.

Zurupatu al duzu inoiz lore bat? EZ baduzu egin, hirustarekin froga dezakezu, hartu lorea oinaldetik, petaloak askatu eta, Zuriska dagoen aldetik zurupatu. Zer gustu dauka?...horrekin egiten dute ezta: nektarra.



Langile finak

Lotu itzazu erleen lanak zuen guraso eta senitartekoen lanbideekin:


• Bizitzeko abaraskak egiten dituzte.

• Polena eta nektarra biltzen dute.

• Elikatzeko eztia eta erregina jalea sortzen dute.

• Lorez lore polena daramate eta fruituak eta haziak sortzen dira horri esker.


• Erlauntzera etsaiak ez sartzeko guardian egoten dira.





Erleak lorez lore

Erleak lorez lore ibiltzen dira loreetatik nektarra jasoaz eztia egiteko.


 Probatu al duzu inoiz eztia?

Bai

EZ

 Zein zapore du?

Gozoa

 Zerekin jaten duzu? Marka itzazu X batekin:

Esnearekin

Gozokietan

Jogurtarekin

Mamiarekin

Intxaurrekin

Pasteletan

Frutarekin



Bisita egin ondoren

Pausuz pausu

Gogoan al duzu egindako kandela? Eta kandela egiteko emandako pausuak?

✎ Ordena ezazu:



2

1



✎ Marraztu ezazu zure kandela eta piztu!



Bazen behin...

 Asma ezazu erlea protagonista duen ipuin labur bat:

Bazen behin...

Erleak zaindu eta eztia eta kandeletako tailerra egiten dituen baserritarra ezagutu duzu, baina badira abarkak, gazta, barazkiak, ogia, frutak, lore eta landareak, ekoiztu eta azokara saltzera joaten diren beste batzuk ere, ezagutzen al dituzu?

“Baserrria, natur eskola bizia” programak baserriak, baserritarrak, beraien tailerrak, baratzak, produktuak, ... ezagutzeko aukera ematen dizu, eta gainera beraiekin ikasi eta zu zeuk ere kandelak, abarkak, ogia eta beste hainbat gauza egiteko gai izango zara. Animatu eta joan zaitetz zure inguruan dituzun beste baserri eta baserritar ezagutzera!